M'GOUN
MENDIA ETA IBAIA

Trekking hau, M'Goun mendiaren hegoaldeko aurpegia eta izen bera duen ibaiaren haitzarteak zeharkatuz burutu dugu. Paraje ikusgarri hauek, Marokoko Goi-Atlas mendikatean kokatzen dira. Bide batez, mendi hauetan bizi diren amazig herritarren bizitza eta ohiturak ezagutzeko aukera paregabea izan dugu. Lau eguneko iraupena izan duen ibilaldi hau Bou Tgrhar herrian hasi eta amaitzen da, beraz, ibilbide zirkularra da eta 70 bat kilometroko luzera du. Taldea hamahiru lagunez osatuta dago: Zaragozan jaiotako Manolo gidaria, Atlaseko mendiak ondo ezagutzen dituen Mohamed mendi gidaria, zortzi euskal mendizale eta, mandazain, sukaldari eta zerbitzari lanetan arituko diren hiru amazig.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mailu Agirrezabala Landa
(Matxinbenta, 1959)

Zestoako Agiro mendi klubeko kidea irakaslea da ogibidez. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan hainbat urtetan aritu eta gero, egun Bigarren Hezkuntzan Geografia eta Historiako klaseak ematen ditu. Bere zaletasunak, bidaiatzea, irakurtzea, beste kulturak ezagutzea eta mendian ibiltzea dira.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Jose Luis Olazabal Azpiazu "Palaziyo"
(Zestoa, 1958)

Zestoako Agiro mendi klubeko kidea arotza da ogibidez. Bere zaletasunak argazkigintza, bidaiatzea, irakurtzea, beste kulturak ezagutzea eta mendian ibiltzea dira. Pirinioetan, Alpeetan eta Espainiako mendikateetan hainbat aldiz ibilia da. Hauez gain, Aconcagua, Kilimanjaro eta Elbrus mendiak igo ditu.

Agortuta zegoen Asselda lakua

1. ETAPA: BOU TGHRAR – RBAT

Iraupena: 17 km
Desnibela: +300 m / -300 m

Bou Tghrar herri txikia, M'Goun ibaiaren ertzean kokatzen da, Arrosen harana izenez ezaguna den lurretan. Lehen eguneko ibilaldia 1500 metroko altueran hasten da, M'Goun ibaia zeharkatu, zenbait amazig herrixken ondotik igaro eta ibaiaren ertzetik aurrera egin dugu. Ibaiertzetan, landatutako lurrak ikusi ahal izan ditugu: arrosa landarez inguratutako baratzak, garagar soroak, hainbat lorez betetako zelaiak eta belardiak, besteak beste. Altura hauetan, ura inguruan izateak bizia ematen dio hemengo herrixketan bizi den jende xumeari.

> Bidean txorien kantuak, errekaren zurrumurrua eta lurralde hauetan bizi diren gazte eta umeen zalapartak entzun daitezke

Udaberrian gaude eta ibaiko ura ez da oso ugaria, halere, bide osoan txorien kantuak, errekaren zurrumurrua eta lurralde hauetan bizi diren gazte eta umeen zalapartak entzun ditugu sarritan. Herrixka hauetan dauden kasbahk ikusteko parada izan dugu, te bero eta goxo bat dastatzen dugun bitartean barrutik ezagutzeko aukera izan dugularik. Guk ikusitakoak hiru solairu ditu eta, batetik bestera igarotzeko eskaileraz osatutako pasabide estu bat du. Eraikinaren altuera zortzi bat metrokoa da eta azken solairuan terraza bat du. Terraza honetatik, herria eta bere ingurua ikus daiteke eta, gidariak esan digunez, bailara zaintzeko eta babesteko erabili ohi zuten. Bizitoki hauek buztinez eta lastoz osatutako material blokez eginak daude. Gelak aireztatzeko eta argiztatzeko, era egokian kokaturiko kristalik gabeko leihoak dituzte. Kanpoaldetik, eraikinak lurraren kolorekoak badira ere, barrualdeko paretak koloreztatuak eta zoruak kolore biziko alfonbrez eta mantaz estalita dituzte. Beraz, barrura sartzean, ezusteko dekorazio batekin aurkitu gara.

Azken kilometroak Mgoun ibaiaren bidea jarraituz bete dugu, apirilaren amaiera da eta ur-emari txikia dauka. Beraz, bai guk eta bai bertako biztanleek, ibaiaren ibilgua oinez zeharkatu dezakete leku batetik bestera joateko. Zenbait urte sasoitan, uraren emaria handia den garaitan, errekaren maldetan beste zidor batzuk eginak dituzte. Rbatera iristear gaudela, uretako oinetakoak jantzi eta oinak freskatuz iritsi gara gaurko helmugaraino. Lehen gaua Rbateko "Gite d´Etape" edo aterpetxean hartu dugu atseden.

2. ETAPA: RBAT – AMESKAR EL FOUQANI

Iraupena: 17,4 km
Desnibela: +700 m / -700 m

Baratza eta herrixken artean altuera irabazten hasi gara. Hasierako paisaia berdea da baina, altuera hartzen dugun heinean, aldatzen hasten da. Mendian gora, harri koskorrez eginiko bidexkan zehar goazela, 2200 metrora iris-



Asselda lakuako iturria

tean aurkitu dugu goi-ordoki zabal batera heldu gara. Hemen, berriro landaretza eta etxekotutako animaliekin egin dugu topo. Lurralde hauetako biztanleak, amazigak, nomadak dira eta artzaintzara dedikatzen dira gehienbat. Hemen, goian, ikusi ahal izan ditugu ardi eta ahuntz taldeak beren artzainarekin. Astoak eta mandoak ere estimu handian dituzte amazigek, batik bat pertsona eta produktuen garraiorako. Gu, hamahiru pertsonez osatutako talde bat gara eta, gure ekipajea eta janaria garraiatzeko hiru mando daramatzagu.

Astoak eta mandoak ere estimu handian dituzte amazigek, batik bat pertsona eta produktuen garraiorako

Eguerdi aldera eta bazkaltzeko aitzakiaz, Asselda izeneko agortutako laku baten inguruan dagoen iturri batean hartu dugu atseden. Bertan, mutil gazte bat ikusi dugu ahuntzak eta ardiak zaintzen; aldi berean, hiru neska koskor agertu dira beste hainbat astorekin eta ura garraiatzeko ontziekin. Gure jatorduak iraun duen arte han inguruan ibili dira eta, guk jaten amaitzean, sukaldariak janaria eskaini eta bertan bazkaldu dute. Janari berdina izan arren, harrigarria gertatu zaigu bertako herritarrek inoiz ez dituztela jatorduak gurekin batera egiten, beti guk jan eta gero, eta gugandik distantzia batera.

Gaurko etapa honetan 700 metroko malda jaitsi dugu. Altuera hauetan, landaretza eskasa da eta lurzorua harri koskorrez estalita dago. Intsentsu-sabina zuhaitzak han-hemen bakandurik ikusi ahal izan ditugu. Pozik iritsi gara herritik zertxobait aparte dagoen "Gite d`Etape"ra eta bertan pare bat urteko haurra besoetan zuen etxekoandreak eman digu ongi etorria. Neskatilak oso argia ematen du eta bere bi begi handiekin jakin-minez begiratu digu. Ameskar El Fouqani da herrixka honen izena. Eguneroko ohiturari jarraituz, te bero baten ondoren, dutxatu eta taldekideak herria ezagutzera joan diren bitartean, etxeko patioan eguzkiaren azken izpiak gozatzen zuten eserleku batean jarrita egunerokoa idazteari ekin diot. Minutu pare batera bi urteko haurtxo bat nire ondora gerturatu eta harriduraz begiratu nau. Boligrafoaren mugimenduan jarri du arreta eta ohartu naiz, objektu ezezagguna dela berarentzat. Bere eskutxoez boligrafoa

Agerzakan irteera

Amapolak

ukitu eta idazten jarraitzea eragotzi dit. Ezin elkar ulertu, beraz, keinuen bidez adierazi diot idatzi egin nahi dudala eta arren, boligrafoa ez ukitzeko. Azkenik, urte batzuk zaharragoa den bere anaia etorri eta besoetan eraman du.

3. ETAPA: AMESKAR EL FOUQANI - AGUERZAKA

Iraupena: 21 km
Desnibela: +800 m / -800 m

Gauetan freskatu ohi du eta goizetan jertsea estimatzen dugu. Betiko orduan gosaldu dugu etxeko patioan eguzkiaren lehen izpien gozotasuna aprobetxatuz. Bezperan bezalaxe, etxekoandrea haurra besoetan zuelarik azaldu da gu agurtzera. Gure gidariek, denon izenean izan dugun harrera eskertu eta gero, hirugarren etapari ekin diogu. Gaurkoa da etaparik luzeena eta, desnibela handia ez bada ere, handienetakoa dela esango genuke. Lehen ordu eta erdian irabazten da etapa honetako altura handiena, 2600 metro inguru eta handik jaisten hasten da. Intsentsu-sabina zuhaitzak ikusten dira alde guztietan, malda hauetan ikusten den zuhaitz mota bakarra dela esango genuke. Zuhaitz honen ezaugarririk nabarmenena bere sustraiak dira, ez dira sakonak baina, zuhaitzaren bueltan, alde guztietara hedatzen diren sustrai indartsuak dira. Hauen funtzioa, maldetako harrixka libreak beherantz ez jaustea da eta goian mantentzea. Zuhaitz hauetako batzuen biziraupena mila urtekoa izan daitekeela aipatu digute.

> Ikatza egiteko, intsentsu-sabina zuhaitzen inausketatik lortzen duten egurra erabiltzen dute

Eguerdi alderako 1800 metrora jaitsi gara. Poliki-poliki paisaia aldatuz joan da eta, altura hauetan bi edo hiru adobezko etxebizitza eta intxaurrondoak aurkitu ditugu. Etxe xumeak dira, leiho gutxi eta hotz-berotik babesteko tximiniarik gabekoak. Egurra soberan ez dutenez, sua bakarrik sukaldatzeko erabiltzen

dute eta ez etxea berotzeko. Ibilbide hauetan, txondorren hondakinak ere ikus daitezke. Ikatza egiteko, intsentsu-sabina zuhaitzen inausketatik lortzen duten egurra erabiltzen dute. Gaur, beste mota bateko etxebizitzak ere ikusi ahal izan ditugu, maldan zulatutako lurrezko kobak erabiltzen omen dituzte amazigek, beren artalde eta ahuntz taldeak mendiaren gora igotzen dituztenean, uda sasoian, bazkatzera. Bizileku hauek, garai batean nahikoa isolatuak bazeuden ere, gaur egun, ibilgailuez iristeko prestatuta daude.

Aguerzakako eraikin denak lurraren kolorekoak diren arren, hauetako bat guztiz koloreztatua ikusi dugu, herriko eskola hain zuzen ere. Gure presentzia sumatzean, lau bat mutil koskor gerturatu zaizkigu, ez dago hitzezko komunikaziorik ez eta, beharrik ere, euro bateko txanpon bat erakutsi digute eta dirhanak nahi dituzte trukean. Trukea onartu eta euro bakoitzeko 10 dirhan eman dizkiegu. Aguerzakan, Mgoun ibaiaren ibilgua oso zabala da eta ura indartsu jaisten da. Hankak busti eta arropa garbitzeko aprobetxatu dugu.

4. ETAPA: AGUERZAKA – BOU TGHRAR

Iraupena: 15 km
Desnibela: +600 m / -900 m

Gaur azken etapa dugu eta hasierako herrira itzuliz amaituko dugu ibilaldia. Aguerzakatik irten bezain azkar, M'Goun ibaia zeharkatu dugu eta bere ibaiadar lehor batera iritsi gara. Ibilgua erabat lehorra dago eta, bertatik burutu dugu ibilbidearen lehen zatiaren ondoren, ibaiaren beste aldeko maldan

Agerzake-Bou taghrar

gora hasi gara. 30 minutu inguruan, 2600 metroko altura hartu dugu. Bertara iristean, tontor batera igo eta, azken egun hauetan igarotako mendi, herrixka eta parajeak ikusteko tarte bat hartu dugu, geure begien gozamenerako.

Beherantz egin dugu segidan eta, M'Goun ibaiaren ertzean kokatuta dagoen Issoumar herrira iritsi gara. Hemen, ur-emaria txikia izan arren, ibaiaren ibilgua zabala da eta ura indarrez jaisten da. Bertatik bertara ikusi ahal izan dugun bezala, amazig emakumeek, eguraldia lagun, etxeko alfonbrak eta mantak ibaian garbitzen dituzte eta lehortzeko erreka bazterretako zuhaixken gainean zabaltzen dituzte eguerdi aldera, eguzkia indartsu jotzen duenean. Alfonbrak eta mantak garraiatzeko astoak erabiltzen dituzte eta, Issoumarreko andre hauentzat, egun osoko ekintza bat izan daiteke. Herrixka honen kanpoaldean, berdetasuna, baratzak, intxaurrondoak eta sagarrondoak ikus daitezke. Ibilaldia hemen bukatu eta Bou Tghrarrera furgonetaz itzuli gara Goi-Atlasen egindako lau eguneko ibilbide zirkularrari amaiera emanez.

Ur-emaria txikia izan arren, ibaiaren ibilgua zabala da eta ura indarrez jaisten da

Azken eguneko arratsaldea Bou Tghrarren pasa dugu eta, aipatzekoa eta aholkatzeko modukoa da bertako "Gite d´Etape"a. Eraikin handi honek mota askotako logelak ditu. Errepidearen beste aldean, terraza handi bat dauka mahai eta aulkiekin eta honen azpian 50 bat lagunentzako jangela zabal bat. Dutxatu eta arropa aldatu ondoren, terrazan

Omar gure mandazaina

eseri gara, zerbait kontsumitu nahian, baina ez dago garagardorik eta horren ordez, laranja zuku fresko eta zaporetsua dastatu dugu. Aterpetxe honetan egindako afariak, egun hauetan jan ditugun jaki zaporetsuak ekarri dizkigu gogora: ogi egin berria, entsalada, kuskusa, haragiaz eginiko broxetak... Mohamed gidaria goiz jaiki da gu agurtzeko eta besarkada batez hurrengo arte esan diogu.

Erreka zeharkatzen